

IDEIA

Egoitz, Urtzi eta Joanes, udaran hondartzan baino bat hartzan zeudela, dutxeta joan ziren gatza kentzera. Toailetan zeudela neskei begira, Urtzik egarria zuela esan zion beste lagunei. Urtzik anka puskaturik zuen eta konturatu zen zerbait hartzera joateko ibilaldi luzea egin behar zuela.

Zarautzen ez zen izango ideia hori oso praktikoa, tabernak hondartzaren ondoan daudenez. Aldiz, Zumaiko Santillo hondartzan zirela, ideia hori bururatu zitzaien ikusita Santillo hondartzako txiringittoa urruti geratzen zela eta jendearentzat erosotasun handia izango zela.

Orduan Egoitzek ideia bat proposatu zuen esanez zergaitik ez dagoen janari eta edari saltzailerik. 3 Lagunak, ideia horri buruz bueltaka ibili ziren.. Azkenean Joanesek proposatu zuen, “zergatik ez dugu sortzen erosotasun hori jendea hondartzatik mugitu gabe janaria eta freskagarriak erosteko”. Lagunak adostasun batera iritsi ziren eta idea hori martxan jartzea erabaki zuten.